



# Bilbao

UDALA  
AYUNTAMIENTO



**Bilboko Udalaren  
diru laguntzak  
eskatzeko jarraibideak**





## aurkibidea

<b>1. Zein erakunde aurkez daitezke .....</b>	<b>3</b>
<b>2. Eskaera aurkezteko bideak .....</b>	<b>4</b>
<b>3. Nola egin eskaera.....</b>	<b>5</b>
<b>3.1. Eskaera elektronikoa.....</b>	<b>5</b>
<b>3.2. Erregistro bidezko eskaera.....</b>	<b>6</b>
<b>4. Kontuan hartu beharrekoak .....</b>	<b>7</b>
<b>5. Jasotako diru-laguntzaren justifikazioa.....</b>	<b>8</b>
<b>6. Informazio gehiago eta kontaktua .....</b>	<b>9</b>



Nora joan nahi duzu?  
Aukeratu atal bat



# 1. Zein erakunde aurkez daitezke

- **Irabazi asmorik gabeko entitateak** (Herritarren Partaidetzako Erakundeen Udal Erregistroan izena eman duten elkarteak, federazioak, fundazioak...).
- Bilbon egoitza duten **hezkuntza zentroak**.

 [deialdiak ikusi](#)

 [aurkibidera itzuli](#)



## 2. Eskaera aurkezteko bideak

### Noiz:

Epea urtarrilaren hasieran hasten da,  
Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratzen denean.  
Hortik aurrera, eskaera aurkezteko epea hilabete bat izango da gutxi gorabehera.

### Nola:



**ELEKTRONIKOA:** Bilboko Udaleko webgunean.  [informazio gehiago](#)



#### ERREGISTRO BIDEZKO ESKAERA:

- AURREZ AURREKO ESKAERA,  
KOMENI DA HITZORDUA ESKATZEA

 [informazio gehiago](#)



- E-ERREGISTRO ESKAERA  [informazio gehiago](#)



**OHARRA:** Komeni da aldez aurreko hitzordua eskatzea aurrez aurreko eskaera aurkezteko.




aurkibidera itzuli

# 3. Nola egin eskaera



## 3.1. Eskaera elektronikoa informazio gehiago

### 1. Eskaera elektronikoa egin ahal izateko, eduki behar dugu:

- Web orrira sartzeko erabiltzaile kodea eta gakoa.  
Dagoeneko badutenentzat bakarrik balio dute Udaleko erabiltzaile kodeak eta gakoak.  
Erabiltzaile kodea eta gakoa dutenentzat, baina gogoratzen ez dituztenentzat hemen sartu: 
- Ziurtagiri digitala:
  - BakQ: ez da ziurtagiri irakurgailua behar.
  - Onartzen diren beste ziurtagiriak: lizenpe, ONA txartela, Ancert, Camerfirma, FNMT...  
Ziurtagiri irakurgailua behar da.

### 2. Aplikazioak eskatzen dituen datuak sartu.



### 3. Erantsi PDF formatuan dokumentu hauek:

- Diru-laguntza eskatzen den programaren deskribapena.
- Aurreko urteko jardueren memoria.
- Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ziurtagiriak, Udalak egiaztatzearen aurka egin bada.

## 3. Nola egin eskaera



### 3.2. Erregistro bidezko eskaera

- AURREZ AURREKO ESKAERA, KOMENI DA HITZORDUA ESKATZEA





- E-ERREGISTRO ESKAERA



**OHARRA:** Komeni da aldez aurreko hitzordua eskatzea aurrez aurreko eskaera aurkezteko.



#### Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide orria. 
- Programa bakoitzaren aurrekontuari buruzko fitxa. 
- Programa bakoitzaren azalpen-dokumentua, aurkeztutako gastua eta diru-sarrerak ere azaltzen dituen.
- Aurreko urtean egindako jardueren memoria.
- Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak egiaztatzearen aurka egin bada ("Eskabide orriko" "Erantzukizunpeko adierazpena eta Bilboko Udalarai baimena" atalean).
- "Hartzekodunen fitxa", Udaleko dirulaguntzarik edo bestelako ordainketarik inoiz jaso EZ dutenek.
- Oinarri Espezifikoetan agertzen den beste edozein dokumentu.



aurkibidera itzuli



## 4. Kontuan hartu beharrekoak

- Egoitza soziala Bilbon duten elkarteek Herritarren Partaidetzako elkarteen udal erregistroan izena emanda egon beharko dute.
- Programa bakoitza diru-laguntza lerro bakar batera aurkez daiteke.
- Oinarri espezifikoek ere muga dezakete eremu bakoitzera aurkez daitekeen programa kopurua.
- Eskatzen den zenbatekoak ezin du gainditu programa bati eman daitekeen zenbatekoa.
- Lortutako diruaren guztizkoak (diru-laguntza + berezko finantzazioa + kuotak...) ezingo du programaren kostua gainditu.
- Diru-laguntza hauek beste erakunde batzuenekin bateragarriak dira.
- 10 egun baliodun egongo dira aurkeztutako dokumentuetan akatsak zuzentzeko edo falta direnak aurkezteko.
- Elkarte bakoitzak programa bat baino gehiago aurkez dezake, betiere oinarri espezifikoak kontuan izanda.
- Programa bakoitzerako diru-laguntza bana eskatu behar da.
- Aipatu behar dira diru-laguntza lerro bat eta diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak.
- Udaleko diru-laguntza jakitera eman behar da eta Bilboko Udaleko logotipoa jarri behar da kartel, esku-orri, euskarri eta bide elektronikoetan, iragarkietan... Hau betetzen ez bada, emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.
- Diru-laguntza jaso duen jardueraren komunikazioa eta publizitatea euskaraz eta gazteleraz egingo da eta irudi eta hizkera inklusiboa erabiliko da.



nola inskribatu



Programan egin nahi den edozein aldaketa Udalari eskatu behar zaio eta Udalak hau onartu behar du programa burutu baino lehen, deialdiko 16. artikulua dioen bezala.



aurkibidera itzuli



## 5. Jasotako diru-laguntzaren justifikazioa

**3 hilabeteko epea** dago:

- Programaren amaieratik (denboralizazioa).
- Diru-laguntza ematen denetik (programa diru-laguntza jaso aurretik amaitu bada).
- Diru-laguntza justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

**Justifikatu beharreko kopurua:**

Aurrekontuaren (edo birformulatutako aurrekontuaren) %100 justifikatu beharko da eta ez soilik Udalak emandako kopurua.



**Justifikazioak honako hauek jasoko ditu:**



- Programa gauzatzeko egindako jardueren eta lortutako emaitzen memoria.
- Programa gauzatzeari dagozkion gastuen eta sarreraren balantzea, Udaleko “Programaren likidazioa” ereduaren arabera.
- Egindako gastuak justifikatzeko jatorrizko dokumentazioa: onuraduna identifikatzen diren fakturak eta gastuaren deskribapena.







## 6. Informazio gehiago eta kontaktua

- Udaleko web orria: oinarri orokorrak, espezifikoak, dokumentuak... 
- Laguntzarako beste baliabideak:
  - Deitu: 944010010 edo 010.  
Orduategia: 8:00etatik 20:00etara astelehenetik igandera.
  - Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko Gaietako Saila  
Campo Volantín pasealekua, 1 bis, 5. solairua, 48007 Bilbo.  
944 204 333  
[participacion@bilbao.eus](mailto:participacion@bilbao.eus)
- Bilboko Udaleko gainerako sailak. Hurrengo orrian aurki ditzakezu: 

## Bilboko Udaleko gainerako sailak

### **Genero indarkeria errotik ateratzea eta berdintasuna**

Berdintasuneko eta Jaietako Saila  
Venezuela plaza 2, 4. solairua  
48001 BILBO  
Telefonoa: 94 420 48 44  
Email: berdintasuna@bilbao.eus

### **Garapenerako Lankidetzak**

Giza Eskubideak, Bizikidetzak, Lankidetzak eta Kulturartekotasun Saila  
Venezuela plaza 2, 4. solairua  
48001 BILBO  
Telefonoa: 94 420 42 03 / 94 420 43 53  
Email: cooperacion@bilbao.eus

### **Bizikidetzak eta Kulturartekotasuna**

Giza Eskubideak, Bizikidetzak, Lankidetzak eta Kulturartekotasun Saila  
Venezuela plaza 2, 4. solairua  
48001 BILBO  
Telefonoa: 94 420 48 07 / 94 420 46 74  
Email: inmigracion@bilbao.eus

### **Partaidetza eta Barrutiak**

Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko Gaietako Saila  
Campo Volantín pasealekua, 1 bis, 5. solairua  
48007 BILBO  
Telefonoa: 94 420 43 33 / 94 420 54 76  
Email: participacion@bilbao.eus

### **Ingurumena**

Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila  
San Agustín eraikina.  
Ernesto Erkoreka plaza 12, 5 B  
48007 BILBO  
Telefonoa: 94 420 51 93  
Email: mambi@bilbao.eus

### **Hezkuntza**

Hezkuntza Saila  
Venezuela plaza 2, 6. solairua  
48001 BILBO  
Telefonoa: 94 420 52 43 / 94 420 52 33  
Email: hezkuntza@bilbao.eus

### **Gazteria**

Gazteria eta Kirol Saila  
Sabino Arana 50  
48012 BILBO  
Telefonoa: 94 420 54 09  
Email: gazteria@bilbao.eus

### **Euskara**

Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko Gaietako Saila  
Campo Volantín pasealekua, 1 bis, 4. solairua  
48007 BILBO  
Telefonoak: 94 420 44 16 / 94 420 43 91  
94 420 51 61  
Email: euskera@bilbao.eus

### **Osasuna eta Kontsumoa**

Osasun eta Kontsumo Saila  
Kristo 1, 5. solairua  
48007 BILBO  
Telefonoa: 94 420 49 54  
Email: salud@bilbao.eus

### **Jaiak**

Berdintasuneko eta Jaietako Saila  
Venezuela plaza 2, 5. solairua  
48001 BILBO  
Telefonoa: 94 420 31 47  
Email: atf@bilbao.eus

### **Kultura**

Kultura eta Gobernantza Saila  
Venezuela plaza, 2, 6. solairua  
48001 BILBO  
Telefonoak: 94 420 44 20 / 94 420 44 33  
Email: culturasecre@bilbao.eus